


IKUSITAKOA ETA
ENTZUNDAKOA
KONTA EZAZU



DOMUND
OBRAS MISIONALES
PONTIFICIAS

DOMUND 2021



OMP OBRAS
MISIONALES
PONTIFICIAS

URRIAK 24 - DOMUND 2021

IKUSITAKOA ETA ENTZUNDAKOA KONTA EZAZU

Emaiozu kartazalari

Margotzeko orri hau berezi samarra da ikus dezakezunez. Berarekin zure kartazal pertsonala egin ahalko duzu DOMUNDerako zure laguntza eman ahal izateko.

Ezer baino lehen **marrazkiak** zure gustora **margotu** behar dituzu. Egin al duzu honezkero? Orain **kartazala prestatu** beharko dugu. Aurrena moztu beharko dugu eta ondoren atzeraka tolestatu beharko ditugu alboetako bi ertzak. Ongi markatu ahal izateko, bi marrazkien artean dagoen arrastoari jarraituz tolestatu behar dugu, elkarri bizkarra emanaz gelditu arte. Berriz zabalduko dugu, ertzetan kola jarriko dugu eta haien gainean kartazalaren atzeko parteak itsatsiko dugu. Prest duzu zure diru-laguntza sartu ahal izateko! Ondoren, kartazala ongi itxia uzteko, tolestatu ezazu goiko ertza, kola jarri ilundutako tartean eta ertza itsatsi ezazu.

DOMUNDerako zure **diru-laguntza** eskolara edo parrokiara **eraman** dezakezu.

Eragiozu pixka bat buruari

Ze eszena ikusten duzu kartazalaren aurreko aldean, "ikusitakoa eta entzundakoa konta ezazu" jartzen duen tokian? Eta atzeko partean? DOMUND- Aita Santuaren Misio ekintzak" jartzen duenean?

Ze harreman dago bi eszena horien artean? Zer kontatzen ariko ote da neska bigarrenengan? Zerk eragin ote du hori partekatzerak?

Pentsatu al duzu inoiz **misiolariek** Jesusetaz ikusi eta entzun dutena kontatzen diétela besteei? Zoriontsu al dira hori kontatuz? Besteak zoriontsu egiten al dituzte?

Uste al duzu, bigarren marrazkiko neska misiolari bihurtu dela? Zergatik? Hala uste baduzu, **margo ezaiozu gurutze bat** lepoan edo atorrean. Zu ere bera bezalakoa izan al zaitezke?